



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

«Eguneko arretaren eta etxebizitza komunitarioaren zerbitzuak ezartzeari buruzko Memoria» jendaurrean jartzea.

Udalbatzak, 2025eko uztailaren 29ko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa: Etxebizitza komunitarioko eta eguneko arretako zerbitzu berriak ezartzeko espedientea hastea.

Bigarrena: Azterketa-batzordeak aurkeztutako Memoria kontuan hartzea.

Hirugarrena: Memoria jendaurrean jartzea 30 egun naturalez, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean jarri, interesdunek espedientea eta memoria aztertu ahal izan ditzaten eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Epe hori igarotakoan, Udalbatzak aurkeztu diren erabakiak hartuko ditu, eta dagokion erabakiak hartuko ditu zerbitzuen ezarpena eta kudeatzeko modua behin betiko onartzeko.

Basaurin, 2025eko abuztuaren 6an. —Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



EGUNEKO ARRETAREN ETA ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAREN ZERBITZUAK EZARTZEARI BURUZKO MEMORIA

AURKIBIDEA

Aurrekariak

Alderdi Soziala

Alderdi Juridikoa

1. Zerbitzua emateko betebeharra
2. Prestazio/zerbitzuen ezaugarriak3. Kudeaketa-sistema aukeratzea
4. Prozedura

Alderdi Teknikoa

1. Zerbitzuak emateko baliabide materialak
2. Zerbitzua arautzea

Finantza-Alderdia

1. Zerbitzuan erabiliko diren tarifen proiektua
2. Zerbitzuaren azterketa komertziala
3. Zerbitzuaren kostuak (aldakorrak)
 - 3.1. Etxebizitza komunitarioa
 - 3.1.1. Zuzeneko kudeaketaren kostu aldakorrak
 - 3.1.2. Zeharkako kudeaketaren kostu aldakorrak
 - 3.2. Eguneko arreta
 - 3.2.1. Zuzeneko kudeaketaren kostu aldakorrak
 - 3.2.2. Zeharkako kudeaketaren kostu aldakorrak
4. Zerbitzu berrien jasangarritasuna

Zerbitzua bertan behera uzteko arrazoiak

Ondorioak

**EGUNEKO ARRETAREN ETA ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAREN
ZERBITZUAK EZARTZEARI BURUZKO MEMORIA****AURREKARIAK**

Basauriko udalerrriak 40.821 biztanle ditu (2024ko datuak), eta horietatik 11.365ek 65 urte edo gehiago dituzte; hau da, biztanleen % 27,84. Biztanle-multzo horretan, % 42,03 gizonak dira (4.777 pertsona), eta, % 57,97, emakumeak (6.588):

Basauriko biztanleak (2024-11-14)					
Adina	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak (%)	Emakumeak (%)
0-19	3.054	2.853	5.907	51,70	48,30
20-64	11.983	11.566	23.549	50,89	49,11
>65	4.777	6.588	11.365	42,03	57,97
Guztira	19.814	21.007	40.821	48,54	51,46
GUZTIRA	40.821				

Udalerriko adineko pertsonen kolektiboa handituz joan da azken urteetan, Euskal Autonomia Erkidego osoan (aurrerantzean, EAE) gertatu den bezala. Hala, 2020ko urtarilaren 1ean % 22,5 baziren ere, 2024an 65 urte baino gehiago zituztenen proportzioa % 24 zen, aurreko urtean baino 0,5 puntu gehiago, 3,6 puntutan gaindituta Estatuko erregistroa (% 20,4)¹. XXI. mendearen hasieratik, gora egin du etengabe Euskadin 65 urtetik gorako biztanleen kopuruak. Eustatek 20 eta 40 urtera begira eginko aurreikuspen demografikoez hazkunde hori areagotzen dute, eta bereziki nabarmena izango da datozen 20 urteetan.

¹ Iturria: Eustat. <https://es.eustat.eus/indice.html>

Pertsona-talde horren arreta- eta zaintza-premia gero eta handiagoa da, kontuan izanik, adinean aurrera egin ahala, aukera gero eta handiagoak ditugula bakarrik gelditzeko edo pixkanaka gure gaitasunak galtzeko. Nahikoa da datu batzuk ematea horretaz jabetzeko: Basaurin, gaur egun, 752 gizon eta 2.193 emakume daude erroldatuta etxebizitza-okupatzaile bakar gisa; hots, 2.945 lagun. Beraz, pertsona horien guztien kasuan halakorik gertatzen dela baieztatu ezin daitekeen arren, esan daiteke 3.000 pertsona inguru bakarrik bizi direla Basaurin, eta kolektibo oso feminizatua dela (% 74,47 inguru; ia % 75).

Pertsona-multzo horretan, 474 lagunek foru-administrazioak aitortutako I. mendetasun-maila dute (adin-tarte honetako pertsonen % 4,17); 345 pertsonak, II. mendetasun-maila; eta 366 pertsonak, III. mendetasun-maila. Hortaz, guztira, 1.185 pertsonak dute mendetasun-mailaren bat (guztizkoaren % 10,47). I. mendetasun-maila aitortua duten pertsonen artean, 320 emakumeak dira (% 67,51) eta 154 gizonak (% 32,49). Adin-tarte honetan, I. mendetasun-maila duten 256 pertsona ezkongabeak dira edo ez dute izatezko bikotekiderik, eta pentsa liteke, beraz, gehienak bakarrik bizi direla. Horien artean, 203 andrazkoak dira (% 79,29) eta 53 gizonezkoak (% 20,71). Azkenik, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua erabiltzen duten 238 lagun artean, 63ri I. mendetasun-maila aitortu zaie.

Tokiko legeriak toki-erakundearen esku uzten du kolektibo horri arreta emateko eskumena, zenbait modutan: premia sozialean dauden pertsonen eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arretaren eskumena (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.c) artikulua), edo, modu orokorragoan, gizarte-zerbitzuen antolamenduaren, plangintzaren eta kudeaketaren arloko eskumena, aplikatu beharreko legeriaren esparruan (Euskadiko Toki Erakundeak buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.13 artikulua).

Autonomia-erkidegoko legeria oinarritzen da, batik bat, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen Lege horrek udalen esku uzten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako



gizarte-zerbitzuak emateko eskumena, legearen 22. artikulua 1. paragrafoan araututa daudenak, telelaguntza-zerbitzua izan ezik, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa baita (42.4 artikulua). Hori horrela, lehen mailako arretako zerbitzuen artean daude eguneko arreta (22.1 artikulua, 1.7 atala) eta etxebizitza komunitarioak (1.9.4 atala).

Lege hori garatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua onartu zen. I. eranskinean, zera definitzen da:

- Zer den eguneko arretako zerbitzua: «Egunean zehar erabil dezaketen baliabide bat jartzen dute pertsonen eskura. Baliabide horren bitartez, pertsona horiei arreta emateko premia espezifikoekin lotutako intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaie; horregatik, zerbitzu horren helburuak aldatu egiten dira xede den kolektiboaren arabera:
 - a) Mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzea eta ohiko beren bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamendu-egoerak konpentsatuz, behar izanez gero;
 - b) Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eguna igartzeko eta oinarrizko elikadura- eta higiene-premiak betetzeko baliabide bat eskaintzea. Hartzailak: lehenengo motan, mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoak (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik); eta, bigarren motan, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak».
- Zer den etxebizitza komunitarioaren zerbitzua: «ostatu ematea, iraupen luzez edo modu iraunkorrean, mendetasun-egoeran (I. gradua) dauden adinekoei. Zerbitzu hori intentsitate txikikoa da eta langileen laguntza du (...) tutoretzako, bitartekaritzako-bitartekotzako, lagun egite sozialeko eta gainbegiratzeko eginkizunak egiteko, eta baita ere, hala badagokio, arreta pertsonala eta etxeko arreta emateko. Honako helburu hauek ditu:
 - a) Erabiltzaileek komunitate-ingurunean jarrai dezaten ahalbidetzea.
 - b) Erabiltzaileek beren autonomia pertsonal maila hobetu dezatela, maila horri eutsi diezaiotela eta/edo modu autonomoan moldatu daitezela ahalbidetzen duten gaitasun eta trebetasunen nariadura prebenitzea.
 - c) Isolamendu-egoerak saihestea.
 - d) Erabiltzaile horiei segurtasun-sentimendua ahalbidetzea. I. mendetasun-maila duten 65 urtetik gorako pertsonentzat da».

Dekretua onartu zenean zerbitzu guztiak nahitaez eman beharrekoak ez baziren ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 27. artikulua ere (3. puntua) dio bermatu egingo dela lehen eta bigarren mailako arretako zerbitzuak ematea, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hedapenaren arabera². Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak onartuta, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa, Zorroaren Dekretuarekin batera, udaletako gizarte-zerbitzuak hedatzeko benetako ibilbide-orrizat har daiteke, eta, azken batean, hizpide ditugun zerbitzuak ematera behartzen du.

² https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_ss/es_planes/Mapa%20y%20Memoria%20econ%C3%B3mica%20Mapa%20de%20Servicios%20Sociales.pdf

Azaldutakotik ondoriozta daiteke Udala behartuta dagoela aipatutako gizarte-zerbitzuak ematera, nahitaezkoak direlako Basauri eta Etxebarri udalerriek eratzen duten eremuan.

ALDERDI SOZIALA

Jada esan dugu Basaurik 65 urtetik gorako 11.365 biztanle dituela, txosten hau idazteko datan (biztanle-kopuru osoaren % 27,84); horietatik, 4.777 gizonezkoak dira (% 42,03); 6.588, emakumezkoak (% 57,97). Gogora dezagun, HAZek bildutako datuen



arabera, adin-tarte honetako 2.945 pertsona bakarrik bizi direla (etxebizitzaren okupatzaile bakar gisa errolatuta daude); guztizkoaren % 25,92. Ehuneko hori oso handia da: 752 gizonak dira (bakarrik bizi diren adin-tarte horretako pertsonen % 25,53), eta, 2.193, emakumeak (% 74,47). Horrenbestez, esan dezakegu oso feminizatuta dagoen arazo bat dela —bakarrik bizi diren pertsonena—, egoera horretan dauden 4 pertsonatik ia 3 andrazkoak baitira. Gainera, foru-administrazioak aitortutako I. mendetasun-maila duten 474 pertsona daude; horietatik 320 emakumeak dira (% 67,51), eta, 154, gizonak (% 32,49). Azkenik, adin-tarte horretan, I. mendetasun-maila duten 256 pertsona ezkongabeak dira edo ez dute izatezko bikotekiderik, eta pentsa liteke, beraz, gehienak bakarrik bizi direla. Horien artetik, 203 andrazkoak dira (% 79,29), eta, 53, gizonezkoak (% 20,71).

Horrek guztiak agerian uzten du egokia dela hizpide ditugun zerbitzuak eskaintzea egokia eta komenigarria dela, eta, bestela ere, gaur egun araudiak derrigorrezkotzat jotzen dituela zerbitzu horiek.

Eguneko arreta-zerbitzuek 0,13ko estaldura-ratioa dute 100 egoiliarreko (goian aipatutako eremuan). Basauriko biztanle-kopurura estrapolatuz gero:

$$11.365 / 100 * 0,13 = 15 \text{ plaza}$$

Udalak erositako higieziei esker, 40 lagunentzako eguneko arreta-zerbitzua eman ahal izango litzateke, eta aipatutako ratioa bete, horrenbestez.

Etxebizitza komunitarioaren zerbitzuari dagokionez, hirugarren adinekoen egoitzetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren arabera, hala-kotzat hartzen da gehienez ere 14 plaza dituen elkarbizitzarako egoitza, beren kabuz moldatzeko ahalmen jakin bat duten eta familia-giroaren antzeko bizimodua duten pertsona nagusientzat dena (2.b artikulua). Ezaugarri teknikoak Dekretuaren III. Eranskinan bildu dira.

Udalak Sarratun erositako higiezinetan, 14 pertsonentzako etxebizitza komunitario bat egokitu daiteke: nahikoa, aipatutako ratioa betetzeko.

Kontuan izanik zerbitzuon erabilizaile izan daitezkeen ehunka pertsona daudela, uste dugu eskaria ziurtatuta dagoela eta, ziurrenik, baliabideak ez direla nahikoak izango.

ALDERDI JURIDIKOA

1. Zerbitzua emateko betebeharra

Hizpide ditugun zerbitzuak emateko derrigortasunari dagokionez, ikus memoria honen aurrekarietan gizarte-zerbitzuak arautzen dituen legeria autonomikoa.

2. Prestazioen ezaugarriak

Zerbitzuen prestazioen ezaugarriei dagokienez, uste dugu honako hauek ez direla ahal publikoak gauzatzean edo tokiko interes orokorrak babestean zuzenean edo zeharka parte hartzea dakarten kasuak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 94.5 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrek badu bere garrantzia; izan ere, ahal publikoak gauzatzean edo Estatuaren eta Administrazio Publikoen interes orokorrak zaintzean zuzenean edo zeharka parte hartzea dakarten eginkizunak funtzionario publikoei dagozkie soil-soilik, administrazio publiko bakoitza garatzeko legean ezarritako moduan (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 92. artikulua, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina).

Horrenbestez, zerbitzua kudeatu daiteke bai zuzenean bai zeharka. Zuzeneko kudeaketa-moduak dira tokiko erakundeak berak kudeatzea, edo tokiko erakunde autonomo, enpresa-erakunde publiko edo kapital soziala duen titulartasun publikoko tokiko merkataritza-sozietate bidez egitea. Dena dela, azken bi kasuetan, frogatu egin behar da sistema horiek lehenengo biak baino jasangarriagoak eta eraginkorragoak direla. Zeharkako kudeaketan, aintzat hartu behar dira kontratazio-araudian zerbitzu publikoen emakida-kontraturako aurreikusitako sistemak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen di-



tuen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.2 artikulua, abenduaren 27ko 27/2013 Legearen 1.21. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 94.2 artikulua).

Prestazioen ezaugarri teknikoei dagokienez, kontuan izan behar da ia ez dagoela ez eredurik ez esperientziarik. Eta, dagoen arautze urria, aurrerago azalduko da, atal espezifiko batean.

3. Kudeaketa-sistema aukeratzea

Kudeaketa-sistema aukeratzeari dagokionez, ahalmena diskrezionala bada ere, ezin da modu arbitrarioan erabili, Administrazioak aintzat hartu behar dituelako, besteak beste, eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak [Konstituzioaren 103.1 artikulua eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1 artikulua h) eta j) letrak]. Horrela, eraginkortasun-printzipioaren xedea da emaitzak lortuko direla ziurtatzea; eta efizientzia-printzipioarena, berriz, helburuak ahalik eta kostu txikienarekin betetzea. Kostu finko batzuk daude, kudeaketa-sistema edozein izanik ere sortzen direnak —sortzen ari dira—, eta kostu aldakor batzuk ere badaude, aukeratutako kudeaketa-sistemaren arabera, neurri handi batean.

Hasiera batean, pentsatu genuen zerbitzuan erabiltzea Adinekoen Egoitza erakunde autonomoaren giza baliabideak eta baliabide materialak, uste genuelako modu eragin-korragoan aprobetxatuko liritekeela zuzendaritza- eta administrazio-baliabideak, eta, gainera, gutxienez epe ertainera, hobeto baliatuko liritekeela udal-eskumena ez izategatik II. mailako egoiliarrei arreta ematek libre egon litezkeen giza baliabideak. Ordea, gaiari buruz gogoeta egin ondoren, gure gomendioa izango litzateke zeharkako kudeaketa-sistema bat erabiltzea, hasiera batean behintzat, epe labur eta ertainean, enpresa bat kontratatuta, hargatik eragotzi gabe etorkizunean kudeaketa-modua berriro aztertze-ko aukera. Honako hauek dira hori gomendatzeko arrazoiak:

- a) Zerbitzu guztiz berriak izanik, Udalak ez du inolako esperientziarik.
- b) Gaur egun Etxe Maitia Egoitzan ematen diren zerbitzuek ez bezala, zerbitzu hauek (eguneko arreta eta etxebizitza komunitarioa) ikuspegi prebentiboa dute asistentziala baino gehiago, eta oso bestelako intentsitateak. Hori dela eta, Etxe Maitia Egoitzaren lanpostu-zerrendan ez daude udal-sektore publikoko langileekin bete beharko liritekeen hainbat lanpostu, beharrezkoak direnak eguneko arretan eta etxebizitza komunitarioan:
 - Psikologoa
 - Gizarte-langilea
 - Animazio soziokomunitarioko teknikaria
 - Jardueren begiralea

Azken batean, Etxe Maitia Egoitzako giza baliabideak ez dira nahikoak, eta horri gehitu behar zaio zalantza handiak daudela, ea egoitzako klinikako laguntzailak, behar bezalako formakuntzarik gabe, gai izango liritekeen zerbitzu berriek exijitutako zereginak betetzeko, zeinak prebentziora bideratzen baitira, asistentziara baino gehiago.

- c) Era berean, duen egitura dela eta, Etxe Maitiak ez du behar besteko malgutasunik bere gain hartzeko zerbitzu gehiago, gaur egun ematen dituenetatik harago, eta tirabirak sor litezke erakunde autonomoaren antolakuntzan, arriskuan jarritik adinekoei eskainitako arreta bera.
- d) Epe laburrera, ez da espero erakunde autonomoan giza baliabiderik libratuko denik, hau da, beste zerbitzu batera bidera litekeen langile-soberakinik egongo denik.
- e) Horregatik, uste dugu errazagoa izango dela zerbitzu berrien prestazioan kostuak kontrolatzea, hasieran zeharkako kudeaketaren alde egiten bada. Izan ere, kontratistak bere gain hartu beharko litzateke zerbitzu horietan izandako edozein aldaketaren ondorioak (kontratistaren arriskua eta mentura); aldiz, zuzeneko kudeaketaren kasuan, Udalak hartu beharko luke bere gain hasierako kalkuluekiko edozein desbideratze.



Udalak, berez, ez du zerbitzu berriaren kudeaketa bere gain har dezakeen organo espezializaturik. Ondorioz, giza baliabide eta baliabide material egokiak kontratatu beharko lituzke, Udalak aurretiazko esperientziarik ez duen zerbitzu baterako, eta ausazko faktoreak kontuan hartu, hasieran kontrolatzen zailak diren kostuen bilakaerari dagokionez, kudeaketan esperientzia lortu arte gutxienez.

Litekeena da epe ertainera eskala-ekonomietara eta baliabideen aprobetxamendu eraginkorrago batera heltzea; bereziki, Etxe Maitia adinekoen egoitza erakunde autonomoan. Dena dela, guztiz gomendagarria da hasieran esperientzia lortzea zerbitzuaren kudeaketan, eta ondo neurtzea erabiltzaileen beharrak eta baliabide pertsonal eta material zehatzak, planteatutako problematikak eta abar, garrantzi hori duen erabaki bat hartu aurretik, jakina baita hasiera batean azpikontratutako zerbitzu bat gerora berreskuratu egin daitekeela zuzenean kudeatzeko, konplikazio handirik gabe, baina alderantzizkoa dezente zailagoa dela —udal-sektore publikoaren barruan dauden langile kontratatuak daudenean—.

4. Prozedura

Bat etorri Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikularekin, honako urrats hauek egin behar dira:

- a) Udalbatzaren hasierako erabakia, udalkideek eta teknikariek osatutako azterketa-batzorde bat izendatu ondoren.
- b) Batzorde horrek memoria bat idaztea, jarduera ekonomikoaren alderdi sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioei buruzkoa. Memorian, kudeaketa-modua zehazteaz gain, Legeak aurreikusitako artean, prestazioa eten behar den kasuak azalduko dira. Gainera, zerbitzuaren prezioen proiektu bat ere aurkeztu beharko da, kontuan harturik toki-erakundearen behar orokorre aplikatu beharreko onuren zilegitasuna, haren aurrekontuaren diru-sarrerara gisa, eta alde batera utzi gabe erreserba-funtsak eta amortizazioak.
- c) Memoria jendaurrean jartzea, Udalbatzak haren berri jaso ondoren, hogeita hamar egun naturaleko epean zehar, gutxienez, partikularrek eta erakundeek beren ekarpenak egin ditzaten.
- d) Toki-erakundearen udalbatzak proiektua onartzea.

Une honetan, b fasean gaude. Behin memoria idatzita, jendaurrean jarriko da, tasen hasierako onespenearekin batera, eta, gero, gainerako urratsak egingo dira.

ALDERDI TEKNIKOA

1. Zerbitzuak emateko baliabide materialak

Ondasunen Ataletik jasotako informazioaren arabera, inbentario-fitxan jasota dagoenez, higiezinaren kostua 520.150,39 euro izan zen.

Era berean, Kontratazio Atalaren informazioaren arabera, 2023ko abenduaren 11n obra-kontratu bat sinatu zen Construcciones Castellano, SArekin, adinekoentzako egunezko zentro bat eraikitzeko Sarratu auzoan. Eskainitako prezioa 606.157,92 euro izan zen, gehi 127.293,16 euro (BEZa); guztira, 733.451,08 euro. Hala ere, 72.714,98 euro gehitu zitzaizkionez zenbateko horri, kontratatutako obraren zenbateko osoa 806.166,06 euro izan zen (BEZa barne).

Bestalde, 2023ko abenduaren 15ean, obra-kontratu bat sinatu zen E3D 2008, SL merkataritza-sozietatearekin, hirugarren adinekoentzako egoitza bat (bizikidetzako unitatea) eraikitzeko auzo horretan. Eskainitako zenbatekoa 720.693,44 euro izan zen, gehi 151.345,62 euro (BEZa); guztira, 872.039,06 euro. Dena dela, 80.686,29 euro gehitu zirenez, obran guztira inbertitutako kopurua 952.725,35 euro izan zen.

Horrenbestez, higiezinak erosteak dakarren kostuaz gain, Udalak jada eginiko inbertsioa 1.758.891,41 euro da (BEZa barne) (okerrik edo omisiorik ezean). Higiezinaren kostua gehitzen badugu, higiezinak erosteko eta egokitzeko eginiko inbertsioa 2.279.041,90 euro izan da (okerrik edo omisiorik ezean), edozein izanik ere kudeaketa-sistema.



Azkenik, Kontratazio Ataletik jasotako informazioaren arabera, 6 lotetan lizitatu da Sarratuko tutoretzapeko etxebizitzetarako eta adinekoren eguneko arreta-zentrorako altzariak eta ekipamendua erosteko, muntatzeko eta instalatzeko kontratua, eta, baten bat hutsik geratu bada ere, honako hau izan da esleipenei dagokien inbertsioaren kostua:

- 1. Lotea: Altzari Generikoak/Mahaiak-aulkiak, besaulkiak eta banku-apalategiak eta armairuak. Esleipenaren zenbatekoa: 87.622,77 euro (BEZa barne).
- 2. Lotea: Altzari Generikoak/Sukaldeak eta bainugelak. Esleipenaren zenbatekoa: 111.947,99 euro.
- 3. Lotea: Altzari Generikoak/Ekipamendu orokorra. 3. lotearen aurrekontua: 28.016,53 euro + 5.883,47 euro (BEZa): 33.900,00 euro. Esleitu gabe.
- 4. Lotea: Altzari Egokituak/Oheak-besaulkiak-ohatilak. Esleipenaren zenbatekoa: 15.533,70 euro (BEZa barne).
- 5. Lotea: Altzari Egokituak/Bainugelak. 5. lotearen aurrekontua: 21.900,83 euro + 4.599,17 euro (BEZa): 26.500,00 euro. Esleitu gabe.
- 6. Lotea (tutoretzapeko etxebizitzak): Altzari Egokituak/Mahaiak-aulkiak-armairuak. 6. lotearen aurrekontua: 10.909,09 euro + 2.290,91 euro (BEZa): 13.200,00 euro. Esleitu gabe.
- Altzariak eta ekipamendua erosteko, muntatzeko eta instalatzeko esleitutako zenbatekoa (okerrik edo omisiorik ezean): 215.104,46 euro.

Beraz, ibilgetuan eginiko inbertsioari gehitzen badiogu altzarietan eta tresnerian esleitutakoa, bi zerbitzuotarako konprometitutako inbertsioa 2.494.146:36 euro da, guztira (okerrik edo omisiorik ezean): bi milioi eta erdi euro, zenbaki biribiletan.

Inbertsio horrek, gastu arrunta ez bada ere, badu bere garrantzia, etorkizunean ibilgetuaren amortizazioa gastu ez-finantzario gisa zenbatu beharko baita, eta horri gehitu beharko baitzaizkio udal-ondasunak mantentzetik eta kontserbatzetik eratorritako beste gastu orokorrak, gaur egun kuantifikatzen zailak direnak baina zalantzarik gabe sortuko direnak.

Horregatik, uste dugu aurrerago aipatuko den kostuari % 3 gehitu beharko litzaiokeela, kudeaketa-mota gorabehera, ibilgetu materialaren amortizazio gisa (60.000 euro/urte inguru), gastu ez-finantzario modura.

Aurrerago, arreta ipiniko dugu soil-soilik zerbitzuak ematearen finantza-kostuaren kalkuluan; bereziki, langileen kostua eta haiei loturiko zuzeneko kostua adierazten dituen neurrian.

2. Zerbitzua arautzea

Zerbitzuaren prestazio teknikoari dagokionez, jasota dago hizpide ditugun zerbitzuen araudietan, hasieran onartuak iazko uztailako ohiko osoko bilkuran (2024ko uztailaren 23a), eta jendaurrean jarriak, erreklamaziorik jaso gabe. Beraz, behin betiko onartutzat hartu behar dira (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua in fine). Horrenbestez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira:

- Eguneko arreta-zerbitzuaren araudia, 2024ko abenduaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (247 zenbakia).
- Etxebizitza komunitarioaren zerbitzuaren araudia, 2024ko abenduaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (249 zenbakia).

FINANTZA-ALDERDIA

1. Behin zerbitzua udalak bere gain hartuta, indarrean egongo den tarifen proiektua

Esan dugun bezala, Udalak behin betiko onartu ditu jada Basauriko adinekoentzako eguneko arretaren eta etxebizitza komunitarioaren zerbitzuen araudiak, nahiz eta oraingo ez duen ezer esan balizko tarifei buruz.



Gure ustez, tasak izan behar dute, ez prezio publikoak. Izan ere, zera dio Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak (aurrerantzean, TOFA), 21.1 artikuluan: «Tasak ezarri ahal izango dituzte tokiko herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik, edota zergapekoei dagozkien edo haientzat eragin nahiz onura berezia dakarten zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean egiteagatik, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek ez badira zergapekoek beraien borondatez eskatu edo jasotakoak». Artikulu beraren 4 apartatuak gehitzen duenez, toki-erakundeek tasak ezarri ahal izango dituzte «ongintza- eta laguntza-establezimenduetan» eginiko egonaldietan, eta, gure ustez, kontzeptu horren barruan sartzen dira hizpide dugun zerbitzua emango den higiezinak.

Kontuan izan behar da zerbitzua jasotzeko ezinbestekoa dela Basaurin erroldatuta egotea (Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuaren araudiaren 8.a artikulua eta Adinekoentzako etxebizitza komunitarioaren zerbitzuaren araudiaren artikulua bera). Basaurin horrelako zerbitzuak ematen dituen erakunde pribaturik ez dagoenez (tutoretzapeko etxebizitza edo etxebizitza komunitarioen eremuan dauden zerbitzuen erabiltzaileek baliabide publikoak dauden lekuan egon behar dute erroldatuta, nahiz eta beste baliabide pribatu batzuk ere egon daitezkeen, askoz ere garestiagoak ziurrenik), juridikoki seguruagoa da erabiltzaileei kobratu beharreko tarifak tasak izatea, eta ez prezio publikoak (zeinek, jakina denez, zerbitzuen kostua estali behar baitute).³

³ Juridikoki iritzia emateko moduko irizpidea bada ere (kasu honetan gertatzen den bezala, udalerrian bertan alternatibarik ez dagoenean, baina bai aldamenekoan), doktrinak partekatzen duen zerbitzu bat da; ikus El Derecho EDE 2023/768720, 2023ko abuztuaren 21ekoa.

«Oro har, zerbitzu bat edo jarduera bat egiteagatik ezarritako tasen zenbatekoa ezin izan daiteke, osotasunean harturik, delako zerbitzu edo jardueraren benetako kostua edo aurreikusten den kostua baino handiagoa, ezta, halakorik ezean, jasotako prestazioaren balioa baino handiagoa ere. Zenbateko hori zehazteko, zuzeneko nahiz zeharkako kostuak hartuko dira kontuan, are finantza-kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, behar denean, tasapeko zerbitzu edo jardueraren mantentze eta arazoizko garapena bermatzeko beharrezkoak direnak ere, zenbatekoa ordaintzen duen erakundea edo aurrekontua edozein delarik ere» (TOFAren 25.2 artikulua).

Tasa ezarriko da dagokion zerbitzuen ordenantza fiskalean, eta kontuan hartuko ditu erabiltzailearen egoera ekonomiko eta soziala, ahalmen ekonomikoaren ehuneko baten arabera, EUDEL-en gomendioaren arabera.

2. Zerbitzuaren azterketa komertziala

Jada esan dugunez, Basaurik 65 urtetik gorako 11.365 pertsona ditu, eta, horietatik, 4.777 (% 42,03) gizonak dira, eta, 6.588 (% 57,97), emakumeak.

Esan dugu ere kolektibo horren arreta-premia gero eta handiagoa dela, kontuan izanik adinean aurrera egin ahala, aukera gero eta handiagoak ditugula bakarrik geratzeko edo pixkanaka gure gaitasunak galtzeko. Basaurin, gaur egun, 752 gizon eta 2.193 emakume daude erroldatuta etxebizitza-okupatzaile bakar gisa; hots, 2.945 lagun. Beraz, kasu guztietan halakorik gertatzen dela baieztatu ezin daitezkeen arren, esan daiteke 3.000 pertsona inguru bakarrik bizi direla Basaurin, eta kolektibo hori oso feminizatua dela —% 74,47 inguru emakumeak dira (ia % 75)—.

Datu horiekin bakarrik, ziurtzat har dezakegu nahikoa eskari dagoela hizpide dugun zerbitzu-motarentzat. Izan ere, etxebizitza kolektiboaren 14 plazak soil-soilik iritsiko lirarteke 65 urtetik gorako biztanleen % 0,48ra; eta eguneko arreta-zerbitzua, berriz, kolektibo horren % 1,36ra. Kalkulua gehiago finduta, I. mendetasun-maila aitortua duten biztanleen xede-multzoan, I. maila aitortua duten 474 pertsona izango genituzke, eta, beraz, etxebizitza komunitarioaren eskaintza iritsiko litzateke hartzaileen % 2,95era; eguneko arreta-zerbitzuarena, aldiz, % 8,44ra.

Horrenbestez, gaur gaurkoz arazoizkoa da pentsatzea eskaera egongo dela, potentzialki erabiltzaileak izan daitezkeen kopuruak nabarmen gainditzen duelako aurreikusitako eskaintza. Gaia Etxe Maitia Adinekoen Egoitza erakunde autonomoarekin



aztertuta, egia da ez dela oso handia «0» eta «1» mendetasun-mailak dituzten pertsonak egoitzan sartzeko eskaera, baina horrek zerikusia izango luke zerbitzuaren kostu handiarekin eta era horretako egoiliarrentzako laguntza faltarekin. Ondorioz, baliabide hori eskatu ordez, beste baliabide batzuk eskatzen dira, hala nola etxeko laguntza-zerbitzua. Nolanahi ere den, kostua egokitzen bada erabiltzaileen ahalmen ekonomikoaren arabera, oso litekeena da eskaerak eskaintza gainditzea.

3. Zerbitzuaren kostuak (aldakorrak)

3.1. Etxebizitza Komunitarioa

3.1.1. ZUZENENKO KUDEAKETAREN KOSTU ALDAKORRAK

a) Langileen kostua.

Memoria honen eginkizuna ez da esatea egungo lantaldearen tamaina egokia den ala ez. Egoitzaren egungo lanpostuen zerrenda honako hau da:

- Zuzendari-Gerentea
- 1 Administrari
- 2 Zuzendari-Laguntzaile
- 3 Erizain
- 19 Erizaintza-Laguntzaile
- 2 Atezain
- 2 Sukalde-Ofizial
- 2 Sukalde-Laguntzaile
- 2 Arropa Zuri Saileko Laguntzaile
- 1 Langile-Koordinatzaile

Inguruko udaletatik jasotako informazioaren arabera, etxebizitza komunitarioaren zerbitzua emateko, honako langile hauek beharko lirateke:

- 1 koordinatzaile (gizarte-langilea), lanaldi erdian (lanaldiaren gainerako denboran, eguneko arreta-zentroan lan egin ahal izango luke).
- 1 dinamizatzaile, lanaldi partzialean (3 ordu/eguna, astelehenetik ostiralera).
- 3 geriatría-laguntzaile, lanaldi osoan, txanda bakoitza hurrengoari gainjarrita. Egunean, 24,50 ordu.
- Garbitegiko langileak, 4,5 ordu/eguna, astelehenetik igandera.
- Sukaldea, otorduak in situ prestatzeko, 6 ordu/eguna, astelehenetik igandera.

Beste udalerrri batzuetako esperientziak erakusten digute zerbitzua ezin dela eman lantalde txikiago batekin. Adibidez, Barakaldoko etxebizitza komunitarioan: 3 geriatría-laguntzaile, 1 erizain, 2 gizarte-langile, 1 fisioterapeuta, 1 zuzendari, 1 dinamizatzaile eta 1 harreragile. Bilbon, 12 plazako etxebizitza komunitarioan: 5 geriatría-laguntzaile, 1 gizarte-langile, 1 mediku, 1 garbitzaile eta 1 koordinatzaile.

Kalkuluen arabera, zerbitzuaren zeharkako kudeaketaren kasuan, 354.000 euro/urtea ingurukoa izango litzateke soldata-kostua, gastu sozialak barne, eta horri gehitu beharko litzazkioke beste enpresa batzuek eginiko horniduren eta lanen kostua (83.300 euro), beste ustiapen-gastu batzuk (mantentze-lanak, aseguruak, hornidurak, etab.; 21.000 euro), ekipamenduaren amortizazioa (1.500 euro, ekipo informatikoa bakarrik) eta koordinazio- eta kudeaketa-gastuak. Guztira: 499.928 euro; zenbaki biribiletan, 500.000 euro/urtea.

Zaila da kalkulatzea zein izango litzatekeen zerbitzuaren kostua kudeaketa zuzeneko balitz, konbentziturik gaudelako ez litzatekeela beharrezkoa izango plantilla bikoiztea zerbitzu guztiak emateko, eta erakundearen zuzendaritzak aukera izango lukeelako giza baliabideak optimizatzeko, bai hizpide ditugun bi zerbitzuen baliabide komunak, bai epe ertainean libratuko direnak. Hala ere, kontuan



hartuta Etxe Maitia erakunde autonomoaren eta Udalaren ordainsariak, honako kalkulu hau egin daiteke:

Lanpostua	Zenbatekoa (€)
Koordinatzailearen / gizarte-langilearen soldata (lanaldi erdia)	38.934,38
1 dinamizatzaile (15 ordu/astea)	18.902,58
3 geriatría-laguntzaile (klinika-laguntzaileen parekoak) ⁴	172.417,53
Garbategiko langileak (lanaldiaren % 66)	41.486,84
Sukaldeko langileak (ofiziala, lanaldiaren % 120)	43.512,00
Subtotala	315.253,33
Absentismoa (aurreikuspena: % 25)	78.813,33
Aurreikusitako ordainsari gordinak, guztira	394.066,66
Karga sozialak (aurreikuspena: % 34)	133.982,66
LANGILEEN KOSTUA, GUZTIRA	528.049,32

⁴ Zuhur jokatu nahi izan dugu, aintzat harturik Barakaldoko esperientzia, nahiz eta egia den Bilbok 5 geriatría-laguntzaile proposatzen dituela 12 plazarako.

Batzordean, bi aukera aztertu ditugu, otorduen zerbitzurako: catering bat kontratatzea (itxuraz erosoagoa, antzeko kostuarekin), edo sukalde-zerbitzu propioa edukitzea. Bigarren aukera gomendatzea erabaki dugu, ezaugarri bereko zerbitzuen arduradunekin hitz egin ondoren (zehazki, Barakaldorekin eta, bereziki, Getxorekin). Esperientzia handia dute zerbitzu horietan, eta uste dute mesedegarria dela otorduak etxebizitzan bertan prestatzea:

— Pertsonen autonomia mantentzeko, hala nahi duenak bere otorduak presta ditzan.

— Etxebizitzan bizi diren pertsonen dinamizaziorako eta sozializaziorako.

b) Zuzeneko kudeaketaren beste kostu batzuk

Kalkulatu zailak diren beste kostu batzuk ere badaude. Gutxi gorabeherako ideia bat izateko, antzeko zerbitzuak dituzten beste udal batzuetara jo dugu, eta honako hauek izango lirarteke:

— Hornidura-kostuak, elikagaiak, jardueretarako materiala, garbiketa-materiala, langileentzako prebentzio-materiala: 160.000,00 euro.

c) Laburpena

Kontuan harturik orain arte esandakoa, hauxe izango litzateke etxebizitza komunitarioa zuzenean kudeatzearen kostuaren hasierako kalkulu bat:

Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
Ordainsariak, guztira	394.066,66
Karga sozialak (aurreikuspena: % 34)	133.982,66
Langileen kostua, guztira	528.049,32
Erlazionatutako beste kostu batzuk	160.000,00
GUZTIRA	688.049,32

Zenbaki biribiletan, 690.000 euro litzateke etxebizitza komunitarioa zuzenean kudeatzearen kostua.

**3.1.2. ZEHARKAKO KUDEAKETAREN KOSTU ALDAKORRAK**

Antzeko esperientzien inguruan lortu dugun informazioaren arabera, honako hau litzateke kostuen urteko kalkulua:

Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
Beste enpresa batzuen hornidurak eta lanak	80.000,00
Soldata	276.500,00
Gizarte Segurantza	77.420,00
Langileen kostua	353.920,00
Beste ustiapen-gastu batzuk	90.000,00
GUZTIRA	523.920,00

Eta langileen kostuari dagokionez:

Profil Profesionalak	Soldata (€)
1 gizarte-langile (lanaldi erdia)	26.000,00
1 dinamizatzaile (15 h/aste)	22.000,00
2 geriatría-laguntzaile (erizaintzako laguntzaileak, lanaldi osoan)	86.000,00
1 geriatría-laguntzaile (erizaintzako laguntzailea, lanaldi osoan, gauez)	51.500,00
1 geriatría-laguntzaile (erizaintzako laguntzailea, lanaldi partziala, asteburuetan)	22.000,00
1 arropa zuri/garbitegi laguntzaile (17,5 ordu/astea)	16.000,00
1 arropa zuri/garbiketa laguntzaile (7 ordu/astea, jaiegunetan)	7.500,00
1 sukalde-ofizial (30 ordu/astea)	32.000,00
1 sukalde-ofizial (12 jaiegun-ordu)	13.500,00
GUZTIRA	276.500,00

Ikus daitekeenez, zerbitzua zuzenean kudeatzearen kostua handiagoa izango litzateke zeharka kudeatzearena baino: urtean 164.129,32 euro gehiago (% 23,85 handiagoa).

3.2. Eguneko arreta**3.2.1. ZUZENENKO KUDEAKETAREN KOSTU ALDAKORRAK****a) Langileen kostua.**

Antzeko esperientzietatik jakin ahal izan dugunez, honako giza baliabide hauek beharko lirateke zerbitzua emateko:

- Eguneko Arreta Zentroko koordinatzailea. Lanpostu hori bete dezake lanaldi osoko kontratua duen gizarte-langile batek, eta zentroko eta gizarte-laguntzako koordinatzaile-lanak egingo lituzke. Gure ustez, zerbitzuak martxan jartzeko, tutoretzapeko etxebizitzaren koordinatzailea (gizarte-laguntzailearen profilekoa) ardura liteke ere Eguneko Arreta Zentroaz. Zuhurtziaz jokatzuz, beharrezkoa izan liteke % 50eko lanaldi partzialeko kontratua lukeen gizarte-laguntzaile baten errefortzua.
- Arreta psikologikoa. Egunean 3 orduko lanaldia aurreikusten da, astelehen, asteazken eta ostiraletan, 10:30etik 13:30era. Kanpo-kontratazio bidez. Antzeko zerbitzuetatik lortutako datuen arabera, kostua litzateke 14.000 euro/urtea. Kopuru hori bat dator Interneten ikusi ahal izan ditugun soldatekin.



– Dinamizazioa. Kontuan izanik erabiltzaileen kopurua, astelehenetik ostiralera ematea, gutxienez, aurreikus daiteke: 2 animatzaile soziokultural, goizez eta arratsalde (10:30-17:30), eta jarduera fisikoko 1 begirale, goizez eta arratsalde (10:00-17:30), hirurak kanpo-kontratazio bidez. Beraz, irizpide horren arabera:

- Lanaldi osoko bi dinamizatzaileen kostua izango litzateke 70.000 euro, gutxi gorabehera.
- Lanaldi osoko aisia-begiralearen kostua, aldiz, 35.000 euro.

Uste dugu dinamizatzaileek lan egin dezaketela, neurri batean behintzat, bai etxebizitza komunitarioan bai eguneko arretan. Nolanahi ere, zuhurragoa iruditu zaigu hasiera batean kostua bere osotasunean hartzea.

– Arreta pertsonala. Gutxienez, astelehenetik ostiralera: 1 geriatría-laguntzaile, goizez (10:00-14:15) eta 1 geriatría-laguntzaile, arratsalde (14:15-17:30). Hau da, 7,5 ordu/eguna, ia lanaldi osoa. Beraz, klinikako laguntzaile baten kostuari buruz eginiko kalkuluen arabera, kostua izango litzateke 57.500 euro/urtea, gutxi gorabehera.

– Arropa zuri saileko laguntzailea (garbategia). Astean 30 ordu, azterlanaren arabera; lanaldiaren % 80ren baliokidea. Beraz, 25.150 euro. Berrito ere, zalan-tza sortzen da, ez ote litzatekeen posible izango eginkizun horretan pertsona bera aritzea bai etxebizitza komunitarioan bai eguneko arretan. Posible dela uste badugu ere, zuhurtziagatik, kostua bere osotasunean zenbatu dugu.

– 1 sukalde-ofizial (lanaldi osoa): 36.260 euro/hilabetea, erakunde autonomoaren soldata-taulen arabera.

– 1 sukalde-laguntzaile (lanaldiaren % 60): 21.750 euro.

Antzeko zerbitzuak aztertuta, Santurtziko Udalaren Eguneko Zentroak 80 plaza ditu (horietatik 10, eguneko arreta-zerbitzuetarako), eta lanaldi desberdinetan langile desberdinak proposatzen ditu (erizaintzako laguntzaileak eta geriatría-laguntzaileak, psikologoa, txoferra, erizaina, administrari-laguntzailea, fisioterapeuta, koordinatzailea eta animatzaile soziokulturalak). Ezin izan dugu lortu zerbitzu horren ratorik, maiz bi zerbitzuak batera ematen direlako (adibidez, Getxoko Udalak ematen ditu Udal Egoitzaren bidez; Portugaletekoak, aldiz, baliabide berean eskaintzen ditu bi zerbitzuak, kontratazio bidez).

Orain arte aipatutakoaren arabera, honako hau izan liteke berezko langileak izatearen kostua, erakundearentzat:

Lanpostua	Ordainsaria (€)
Koordinatzailea (% 50), gizarte-langilea	26.000,00
Geriatría-laguntzailea	57.500,00
Arropa zuri/garbitegiko laguntzailea (30 ordu/astea)	25.150,00
Sukalde-ofiziala	36.260,00
Sukalde-laguntzailea (% 60)	21.750,00
Subtotala	166.660,00
% 25eko absentismoa	41.665,00
Aurreikusitako ordainsari gordinak, guztira	208.325,00
Karga sozialak (kalkulua: % 34)	70.830,50
Langileen Kostua, GUZTIRA	279.155,50



Kostu horri gehitu behar zaio zerbitzu-kontratu bidez kontratatutako kanpoko langileei dagokiena. Esan dugunez, honako hau litzateke:

	Euro
Dinamizatzaileak (lanaldi osoa)	70.000,00
1 aisia-begirale (lanaldi osoa)	35.000,00
1 psikologo (lanaldi erdia)	30.000,00
GUZTIRA	135.000,00

b) Beste kostu batzuk:

Antzeko zerbitzuetatik jaso dugun informazioaren arabera:

	Euros
<i>Beste enpresa batzuen hornidurak eta lanak (elikagaiak erostea, erabiltzaileei laguntzea, laneko arropa eta NBEak, garbiketa- eta mantentze-produktuak, garbiketa-, higienizazio-, prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzuak, eta kanpoko garraio-zerbitzua)⁵</i>	190.000,00

⁵ 40 lagunen elikadura-premien kalkulu zuhur bat egin dugu, kontuan hartuta 14 pertsonentzako etxebizitza komunitarioaren zerbitzuan kontzeptu horretan jasotakoa.

Kontuan harturik orain arte esandakoa, hauxe litzateke zerbitzua zuzenean eskaintzearen kostuaren hasierako kalkulu bat:

Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
1. Beste enpresa batzuen hornidurak eta lanak	190.000,00
2. Langileen kostua, karga sozialak barne	279.155,50
3. Zerbitzu-kontratu bidez kontratatu beharreko langileen kostua	135.000,00
GUZTIRA	604.155,50

3.2.2. ZEHARKAKO KUDEAKETAREN KOSTU ALDAKORRAK

Bildu dugun informazioaren arabera, zerbitzua zeharka eskainiko balitz, honako hau litzateke kostuen urteko kalkulua:

Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
Beste enpresa batzuen hornidurak eta lanak	135.000,00
Soldatak	205.137,89
Gizarte Segurantza	66.000,00
Langileen kostua	271.137,89
Beste ustiapen-gastu batzuk	86.000,00
GUZTIRA	492.137,89

Eta langileen kostuak honako hauek izango lirateke:

Lanpostua	Urteko soldata (€)
Zuzendaria/Gizarte-Langintza	26.126,85
Animatzailea	67.850,14



Lanpostua	Urteko soldata (€)
Begiralea	9.692,88
Psikologoa	7.872,71
Geriatría-Laguntzailea (Goizez)	41.194,99
Geriatría-Laguntzailea (Arratsaldez)	38.771,75
Garbiketa	13.628,58
Guztira	205.137,89

Kasu horretan, zerbitzua zeharka kudeatzea merkeagoa izango litzateke zuzenean kudeatzea baino: urtean 112.017,61 euro gutxiago (% 18,54 merkeagoa).

4. Zerbitzu berrien jasangarritasuna

Bere garaian eginiko jasangarritasun-txostenen arabera, Udalak 2.803.492,88 euro-ko gaitasun teorikoa zuen gastu-konpromiso osagarrietarako 2024an, eta 2.927.187,13 euro-koa, berriz, 2025ean. Kontuan harturik Udalak baliabide propioekin bere gain hartu beharreko bi zerbitzuen (etxebizitza komunitarioa eta eguneko arreta) kostuak 523.920 euro eta 492.137,89 euro izango liratekeela, hurrenez hurren, uste dugu Udalak, printzipioz, baduela zerbitzu berriak martxan jartzeko ahalmen ekonomikoa (urtean milioi bat euro inguru, gastu arruntean).

Ekitaldi honetako aurrekontuaren memorian jasotako datuen arabera, Udalaren aurrezki garbia honako hau da (milaka eurotan adierazita):

	2025	2024	%
AURREZKI GORDINA	2.465	3.040	-18,9
FINANTZA-GASTUAK	-61	-90	-32,2
MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	-404	-404	0,0
AURREZKI GARBIA	2.000	2.545	-21,4
KAPITAL-SARRERAK	1.088	848	28,3
KAPITAL-GASTUAK	-3.088	-3.394	-10,1

Aipatutako memorian jaso bezala, ekitaldi honetan aurreikusten den aurrezki gordina (sarrerak ken gastu arruntak, finantza-gastuak izan ezik) izango da ia zkoa baino % 19 txikiagoa, 2.465 milioi euro ingurukoa. Aurrezki garbia ere 2024koa baino txikiagoa izango da (-% 21); ondorioz, 2 milioi euro inguru aurreztuko dira.

Zerbitzuak zeharka kudeatzeak 1 milioi euro inguruko karga gehigarria ekarriko du (zertxobait gehiago, BEZa kontuan hartuta). Beraz, ikus daitekeenez, murriztu egingo da, neurri handi batean, Udalaren aurrezteko gaitasuna (gutxi gorabehera, % 40 gutxiago), eta horrek zuhur jokatzeko gomendatzen du, gastu arruntarekin batez ere, haren hazkundearen mugetara iristen ari garela ematen baitu.

Zerbitzua zeharka kudeatuko balitz, urte anitzeko kredituak tramitatu beharko lirateke, eta horretarako mugen barruan gauden egiaztatu.

Kontu-hartzailatza Atalaren informazioa bildu ondoren, zerbitzua emateko behar diren konpromiso-kredituak 2023an eginiko hasierako kalkuluen arabera zenbatuta, konpromiso-kreditu berrietarako tarte bat geratuko litzateke, oraindik, 2026, 2027 eta 2028ko ekitaldietan, nahiz eta tarte benetan estua izango litzatekeen.

2025	2026	2027	2028	2029	2030
667.023,91	316.923,49	380.923,49	380.923,49	1.715.974,15	2.330.026,00

Horrek esan nahi du Udalak oraindik bere gain har dezakeela zerbitzua, zenbaki biribiletan 1.000.000 euro/urte-ko karga erantsita gastu arruntari, baina nabarmen murriz-



tuta aurrezki garbia eta etorkizuneko ekitaldietako kreditua konprometitzeko gaitasuna, legezko mugara hurbilduko bailitzateke. Aipatutakoa nahitaezko zerbitzua da, bai, baina kostu handikoa (gaur egun, araudiak ez ditu argi eta garbi ezartzen zerbitzuen estandararak), eta eragin handia izan dezake Udalaren kutxan. Hortaz, aurreratu dugun bezala, arreta handi-handiz jokatu behar dugu, eta ahalik eta etekinik handiena atera baliabideen erabilerari, gastu arrunta diru-sarrera arruntekin finantzatzeko eta erakundearen finantza-egonkortasuna arriskuan ez jartzeko.

ZERBITZUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Gure autonomia-erkidegoaren gizarte-zerbitzuak erregulatzen dituen araudiaren arabera derrigorrezko zerbitzua izanik, Udalak maniobrarako oso tarte txikia du, batere tarterik ez duela ez esatearren, zerbitzua noiz eta nola emateari utz diezaiokeen erabakitzeko orduan.

ONDORIOAK

Esan dugun guztitik, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

Lehenengoa: Etxebizitza komunitarioaren eta eguneko arretaren zerbitzuak nahitaetzkoak dira, gizarte-zerbitzuei buruzko araudi autonomikoaren arabera. Bi zerbitzuon kostuak 523.920 euro/urtea eta 492.138 euro/urtea dira, hurrenez hurren.

Bigarrena: Zerbitzuak zeharka kudeatzea merkeagoa da, argi eta garbi.

Hirugarrena: Gure proposamena da hasieran zerbitzuak zeharka eskaintzea, enpresa espezializatu baten bidez, dagozkion kontratazio-urratsak egin ondoren, eta, betiere, alde batera utzi gabe epe ertainera kudeaketa-modua berraztertze aukera. Honako arrazoi hauengatik:

- a) Zerbitzu guztiz berriak izanik, Udalak ez du inolako esperientziarik.
- b) Gaur egun Etxe Maitia egoitzan ematen diren zerbitzuek ez bezala, zerbitzu horiek (eguneko arretarena eta etxebizitza komunitarioarena) ikuspegi prebentiboa goa dute asistentziala baino gehiago, eta oso bestelako intentsitatea. Hori dela eta, Etxe Maitia egoitzaren lanpostuen zerrendan ez daude udal-sektore publikoko langileekin bete beharko liratekeen hainbat lanpostu, beharrezkoak direnak eguneko arretan eta etxebizitza komunitarioan:
 - Psikologoa
 - Gizarte-langilea
 - Animazio soziokomunitarioko teknikaria
 - Jardueren begiraleaAzken batean, Egoitzaren giza baliabideak ez dira nahikoak.
- c) Gainera, duen egitura dela eta, Etxe Maitia egoitzak ez du behar besteko malgutasunik bere gain hartzeko zerbitzu gehiago, gaur egun ematen dituenetatik harago.

Laugarrena: Udalaren eginkizuna da zerbitzuen prezioak onartzea, tasa modura gure ustez, ordenantza fiskalak aldatzeko espediente bidez. Gure proposamena da erabiltzaileen ahalmen ekonomikoari ehuneko baten bidez lotutako tarifak ezartzea, inguruko udalerrietako ereduak eta EUDELen proposamenari jarraituz.

Bosgarrena: Udala gai da zerbitzu berri horiek bere gain hartzeko, baina nabarmen murriztuko da erakundearen aurrezki garbia eta, etorkizunari begira, tarte txikia utziko du konpromiso-kredituetarako edo gastu arruntaren hazkunde berriei heltzeko. Beraz, etekinik handiena atera behar zaio da gastua arrazionalizatzeko ahaleginari.

Seigarrena: Prozedurari dagokionez, Udalbatzak memoria honen berri jaso, eta jendaurrean ipiniko du, hogeita hamar egun naturaleko epean, gutxienez, partikularrek eta erakundeek beren ekarpenak egin ditzaten. Epe hori igarota, dagozkion erabakiak hartuko dira.